

# Beldurraren aurkako antidotoak



## ZERGATIK IRAKURRI LIBURU HAU?

Era dibertigarri eta original batez azaltzen dituzten haurren beldurrak, baita haiei aurre egiteko moduak ere.

## ARGUMENTUAREN LABURPENA

Katagorriaren lagun-taldekoek Elisa eskolazainaren gelan daude. Zertara jolastu erabakitzen ari diren bitartean, argia joan da eta ilunpean geratu dira. Egoera horretan, batzuk lagun beldurrak uxatzen ahalegintzen dira, beste batzuk, berriz, zirikatzeko saiatzen dira beldurra eragiteko... Azkenean, izututa egon arren, beldurra gainditzen dute elkarrekin.

## NORENTZAT DA LIBURU HAU?

Era guztietako irakurleentzat, istorio xumea baita. Bereziki gustatuko zaie beldurrak gainditzeko laguntza behar duten haurrei, bai eta lagun-taldeei buruzko istorioak irakurtzea gogoko dutenei ere.

## JARDUERA-PROPOSAMENA



### BAKARKA

Eskatu ikasleei katagorriaren lagun-taldekoen beldur batzuk marrazteko eta beldur horiek nola gainditu dituzten marrazkiaren azpian azaltzeko. Rasiri gertatu zaiona ahaztu gabe.



### BIKOTEA

Jarri ikasleak binaka, eta proposatu ikasleei pentsatzeko beldurraren aurkako zer antidoto erabiltzen dituzten oharkabe egunero (nor bait besarkatu, barrua hustu norbaitekin hitz egin, negar egin, oiher egin, etab.). Gero, eskatu zenbait lerrotan deskribatzeko berek erabiltzen duten antidotorik hoberena eta zergatik funtzionatzen duen.



### TALDEA

- Denen artean, bilatu katagorriaren lagun-taldekoen beste abentura batzuei buruzko informazioa (*Janari-biltegi magikoa*, *Katagorri bat nola kontsolatu*).
- Hitz egin adiskidetasunaz, lagun-taldeko haurrak (eta katagorria) eredutzat hartuta. Adibidez, gai hauetaz hitz egin daiteke: *nola laguntzen dioten elkarri*, *nola egiten dioten aurre zailtasunei*, *nola dibertitzen diren*, *nola jarduten duten hizketan eta nola entzuten dioten elkarri*, *nola fidatzen diren batzuek besteez*, etab.
- Gero, eskatu beren esperientziak lagunei kontatzeko eta adiskidetasunari buruz hitz egiteko.



### ARTE-HEZKUNTZA: PLASTIKA

Proposatu ikasleei beldurra ematen dien zerbaiten maskara bat egiteko ikasgelan, hainbat material erabiliz (*koloretako orriak*, *kartoi meheak*, *margoak eta errotuladoreak*, *tenperak eta ikasgelan dauden beste elementu batzuk*). Denen artean, aukeratu beldurgarrienak eta eraldatu, dibertigarriak izan daitezten (*margotu irribarre bat*, *jarri kapela barregarri bat*, etab.). Ondoren, jarri maskarak ikusgai ikasgelako horma batean.



## IDAZKETA-TAILERRA

Animatu ikasleak beldurrezko istorio txiki bat asmatzera. Horretarako, proposatu beldurra ematen dien zerbaitetaz pentsatzeko (*iluntasuna*, *ekaitzak*, *mamuak*...). Istorio horretan ikasleak eta haien lagunak agertuko dira, eta beldur hori gainditzeko elkarri nola laguntzen dioten kontatuko dute. Azkenik, prestatu giro iluna ikasgelan, eta kontatu ozen istorio horietako bat.